ASTEKARIA | 2014ko uztailaren 11n | XVII. urtea | USURBIL | 581. zenbakia | www.noaua.com

TOKIKOM

# noaua

Antton Aranburu, Bertsopaper Lehiaketako irabazlea

Pilota Txapelketan, usurbildarrak garaile

Mikel Laboaren omenezko zikloa hastera doa



# Kantuan eta dantzan, azkar batean igaro dira festak




**Uztailaren 18an kaleratuko dugu ikasturte honetako azken NOAUA! astekaria**

Irailaren 5ean argitaratuko dugu hurrena

Uda honi begira ohar, albiste, zorion agur... edo iragarkiren bat ipini nahi baduzu, gogoan izan beranduenez uztailaren 14ean ekarri edo bidali beharko duzula.

**OGI BERRI**
ARTISAU OKINAK

ORDUTEGI BERRIA:
egunero 06:00tik 21:00ra

asteburutan ere
gaueko 21:00ak arte!

PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

2014ko uztailaren 11ean,

Kaixo Nauakide!

2014ko kuota kobraketa, **uztailaren 15ean** hasiko dugula jakinarazi nahi dizuegu. Kuota, pasa den urtean bezala, 36€takoa izango da. Beraz, **36€ kobratuko zaizue** datozen egunotan. Kutxa bidez kobraketa egiteko baimena eman badiguzu, bide hori erabiliko dugu aurten ere.

# BAZKIDETZA

Ordainketa eskuz egiten duzuenok gure kontu korrontean sartu beharko duzue dirua edo gure egoitzara ekarri.
Hauxe da gure kontu korronteko zenbakia:
**Kutxabank: 2095 5069 04 1061881826**
Besarkada bat eta hurrengo arte,

NOAUA! KULTUR ELKARTEA

noaua

**OHARRA:** Azken urtean, zure datu pertsonaletan aldaketarik egon bada, guri ahalik eta lasterren jakinaraztea eskertuko genizuke. Aldi berean, edozein zalantza argitzeko guregana jo dezakezu.

## Albistea iruditan

# Etorkizuneko herria marrazteko, gazteenak onenak

Santixabeletako XII. Pintura Lehiaketan parte hartzera animatu zirenek, 3000. urteko Usurbil irudikatu behar zuten aurten. Haur eta gaztetxoen sormenak askorako ematen duela argi geratu da beste behin. Hauek dira, 2014ko Santixabeletako Pintura Lehiaketako sarituak:

- 2/3/4 urte: Maddi Urkia.
- 5 urte: Anes Rekondo.
- 6 urte: Unai Sarasua.
- 7 urte: Aitzol Portularrume.
- 8 urte: Anne Arruti.
- 9 urte: Maddalen Zabaleta.
- 10 urte: Naroa Guembe.
- 11 urte: Izer Dominguez.
- 12 urte: Unai Lopez.
- 13 urte: Eneko Agirresarobe.
- 14/15/16 urte: Ane Ibargoien.



**Beste behin ere, partehartzea handia izan zen Pintura Lehiaketan.**

**Marrazkiak, erakusketara**

Etorkizuneko Usurbil marrazten aritu dira herriko haur eta gaztetxoak Santixabeletako Pintura Lehiaketan. Izan duen parte hartzea eta marrazkien kalitatea ikusita, uztailaren 4ko ekimena bere horretan utzi beharrean, jarraipena ematea erabaki dute antolatzaileek. Lehiaketako marrazkiak laster, erakusketa batean ikusgai izango ditugu.

## Laburrean

### 1958koen kinto bazkarian izena emateko epea ireki da

Irailaren 13rako antolatu dute kinto bazkaria, Antxeta jatetxean. Izena emateko **azken eguna, irailaren 8a.** Prezioa 40 euro. Ordainketak, aurrez Laboral Kutxako kontu zenbaki honetan egin behar dira: 3035 0140 33 1400028867. "Animatu neska-mutilak!", luzatu dute gonbita antolatzaileek.

### Gavarniera, asteburu honetan Andatzakoekin

Larunbat goizeko 6:00etan abiatuko dira Oiardo Kiroldegitik Andatza Mendizaleek Kirol Taldeko kideekin batera, uztailaren 3a baino lehen Pirinioetako irteerarako izena eman zuten herritarrak. Larunbatean joan eta igandean itzuliko dira. Asteburu pasaren inguruko argibideak, **uztailak 10 osteguna, 19:00etan Sutegin.**

### Joxe Domingo Aizpurua, auziperatua berriz ere

Ekainaren 30ean, Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaile Javier Gomez Bermudezek hamar lagun auziperatu zituen, Joxe Domingo Aizpurua usurbildarra tartean. ETAko kide izatea egozten dio epaileak berari eta baita beste bederatzi lagunei ere. **Uztailaren 23an deklaratu beharko dute**, hiruna mila euroko bermea eskatzeaz gain.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Bea Alda, publizitatea@noaua.com.
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Aizpea Aizpurua.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Maialen Unanue

# Datorren urtera arte

Diru gutxiago poltsikoan, ajea, eztarria urratua, eta ohetik altxatzeko lanak. Amaitu dira Santixabelak, badoaz hurrengo urtera arte, eta zapore gazi-gozoa dut nik. Urruti gogoratzen dut txupinazoa (aupa zuek, neskak!), gero halako hutsune bat, eta ostegun arratsaldean hasi ziren festak niretzako.

Paella lehiaketa, bertso musikatuak, herri afaria, kontzertuak, urteroko bertso saioa (norbaitek esan behar lioke Elizasuri Santixabeletakoa ez dela txapelketarako saioa, festetakoa baizik; gaiengatik diot), bertsio gaua eta traka. Horra festetako nire koktela. Eta pena pixka bat ematen dit koktel horretako osagai guztiak arratsalde-gau partekoak izateak; goizeko giroaz gozatu beharrean, lo ematen baititut orduak, aurreko gauetik osatzeko. Adinean aurrera egin ahala, hori aldatuz joango dela suposatzen dut, baina nahiago horretan ez pentsatu.

Lasarteko eta Usurbilgo egitarauek ez dute antz handirik izan. Beno, oro har baino, kontzertuengatik soilik ari naiz: Vendetta, Esne Beltza eta Berri Txarrak eraman zituzten Lasartera; Usurbilen, Kashbad, Willis Drummond eta Anai Arrebak (artistak!) ziren ezagunenak. Aldea egon badago. Dena den, eta hori Usurbilen alde, ez dut uste kontratatutako kontzertuen arabera neurtu beharko genituzkeenik festak. Ez dut uste ezagunenak edo garestienak ekartzea denik festa onenak egiteko formula magikoa. Izatez, gutxien espero nuen gauean bota nuen parrandarik handiena (gau berean galdu nuen ahotsa). Atera naizen bakoitzean jende piloa ikusi dut kaleak betetzen eta, nire irudiko, askoz ere adierazgarriagoa da hori, egitaraua puzten duten kontzertuak baino (batzuetan lagundu dezaketen arren).

Badoaz Santixabelak, beste behin; eta, beste behin, ondoko herrietako festetan bilatu beharko dugu kontsolamendua. Segituan ahaztuko ditugu pena guztiak, Sanferminak, Karmengo jaiak, Madalenak... Batetik bestera salto egingo dugu, gorputzak uzten digun artean; Atxegaldeko festak iritsiko dira (publizitate pixka bat egin beharko!), eta orduan bai, orduan beste urte bat hasiko da (abenduaren 31koa ez da benetakoa). Eta ordurako, urtebete baino gutxiago faltako da 2015eko Santixabeletarako. Eta urtebete zaharrago izango gara berriz iristen direnean.

Eta, zer diren ajearekin idaztearen albo-kalteak, hemen utziko dut zutabea, apokaliptiko jarri baino lehenago.

**Maialen Unanue** | Luis Aranalde | Imanol Ubeda | Idoia Torregarai | Aritz Gorriti | Joxe Piñas | Nerea Zinkunegi

## Uztailaren 18an, opor aurreko azken NOAUA!

Besteak beste, Santio, Xanixteban eta Atxegaldeko festen berri emango duen 582. astekariarekin agurtuko dugu ikasturtea. Uztailaren 18an argitaratuko dugu udako oporraldi aurreko azken NOAUA!. Zorion agur edo oharrik baldin baduzue, uztailaren 14a baino lehen ekarri egoitzara, erredakzioa@noaua.com helbidera idatzi edo 943 360 321 telefono zenbakira deitu. Irailaren 5ean jasoko duzue opor osteko lehen astekaria.




**Zorion-agurrak, oharrak... ekartzeko azken eguna: uztailak 14 astelehena.**

### Bazkidetza kobraketak

Urtero moduan, uztailaren 15etik aurrera hasiko ditugu bazkidetza kobraketak. Kuota, iaz bezala, 36 eurokoa izango da. Kutxa bidez kobraketa egiteko baimena eman badiguzu, bide hori erabiliko dugu aurten ere. Ordainketa eskuz egiten duzuenok NOAUA!ren kontu korrontean sartu beharko duzue dirua edo gure egoitzara ekarri.

Hauxe da kultur elkarteko kontu korronteko zenbakia: Kutxabank: 2095 5069 04 1061881826. Oraindik NOAUA!ko bazkide ez bazara, orain duzu aukera.

Deitu 943 360 321 telefono zenbakira edo idatzi elkartea@noaua.com helbidera.

## Euskara ikasleentzako diru-laguntza deialdi berezia

Uztailaren 15era arte aurkez ditzakete, datorren ikasturteko matrikulazio kostua aurreratzea helburu duen udal diru-laguntza deialdi honetako eskabideak. 2014-15 ikasturtean euskara ikasi nahi izan eta behar ekonomiko bereziak dituzten ikasleei zuzendua dago deialdi hau.

Horretarako, Usurbilen erroldatuak egon beharko dute, klaseen %80ko asistentzia izatea ere ezinbestekoa izango da eta gutxienezko aprobetxamendua ziurtatu beharra izango da. Ikaslearen lan egoera eta ikasketa mailak aintzakotzat hartuko ditu Udalak, diru-laguntzok ematerakoan.

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: uztailak 18. Idatzia ekartzeko azken eguna: uztailak 14 (eguerdiko 11:00ak).

# Diru laguntzak, langabetuak kontratatzearen truke




**Lasarte-Oriako Lanbiden aurkeztu behar dituzte lan-eskaintzak enpresariek.**

Eskualde mailako udalek eginiko deialdia, bailarako enpresa eta profesionalei zuzendua dago. Diru-laguntzok jaso ditzakete, langabetuak kontratatzen dituztenek:

- 3.000 euroko gehienezko laguntza, 3 hilabete iraungo duen lanaldi osoko kontratuko.
- 6.000 euroko gehieneko laguntza, 6 hilabete edo gehiago iraungo duen lanaldi osoko kontratuko.

Bi kasuotan, ez da kontratuaren kostuen %75 baino handiagoa izango.

- 9.000 euroko gehienezko laguntza, 6 hilabete edo gehiago iraungo duen lanaldi osoko kontratuko.

**Kontratazioak, 2015eko ekaina aurretik**

Diru-laguntzok jaso nahi dituzten enpresek, Lasarte-Oriako Lanbideko bulegoetan lan eskaintza zehatza aurkeztu eta Lanbidek proposaturiko izen gaien artean egin beharko dute hautaketa. Eskabideak Andoaingo Urigain etxean aurkeztu behar dira.

**Informazio gehiago:**

- Usurbilgo Udala, 943 371 951 (Josune Mujika teknikariarekin).
- E-posta: enplegu@usurbil.net
- Web orria: usurbil.net (Diru-laguntza deialdi honen oinarri eta eranskinak eskuragarri).

## Gaztelekuko Udabenturak aurrera darrai

Gaztelekutik Udabenturan murgiltzera gonbidatzen dituzte DBH-ko lagunak. Ekimen sorta zabala prestatu dute uztaila amaiera bitarte. Hitzordu guztietarako Gaztelekua izango da elkartzeko gunea. Udako egitarauari buruzko informazio gehiago, egoitzan bertan eskuratu daiteke. Dena den, irteeretan parte hartzeko guraso baimenak Gaztelekuan aurkeztu beharko dira.

**Gaztelekuko udabentura**

Aisialdiko ekintza gehiago datozen asteotan, 12-16 urte arteko gazteentzat:

**Uztailak 10, osteguna**
13:30etatik 19:25era Donostiako irlara (DBH1).

**Uztailak 14, astelehena**
14:50etik 19:10era Voleibol Zarauzko hondartzan (DBH3).

**Uztailak 17, osteguna**
15:00-19:15 Hernaniko igerilekura (DBH2).

**Uztailak 21, astelehena**
12:50etik 19:05era Donostiako irlara (DBH2).

**Uztailak 24, osteguna**
12:50etik 19:05era Zarauzko hondartzara (DBH1).

# Udarregi ikastolaren esker oneko hitzak

Udarregi ikastolan eskolarik ez da oporretan. Baina bestelako lanik egin behar izan da. Agerialdeko eraikin berritua hornitzeko laguntza deialdia egin zuten. Aurreko astean ibili ziren gauzak batetik bestera mugitzen, "auzolanean". Udarregi ikastolak, NOAUA!ko Komunitatea atalaren bitartez, eskerrak eman nahi dizkie modu batera edo bestera laguntzen aritu direnei.

"Mila esker, egunotan auzolan deialdiari emandako erantzun bikainagatik!

Agerialdera mahai, aulki, apal, armairu... eta beste, garraiatzen lagundu diguzuen guztioi eskerrak eman eta zoriondu nahi zaituztegu! Eskerrik berenak, bereziki, antolatzaile- lanetan aritu diren Aloña Mendizabal, Naiara Agirrezabala, Eli Goikoetxea eta Unai Lataillade irakasleei! Eta nola ez, LHko 5. eta 6. mailetako ikasleei nahiz DBHko ikasle guztiei ere! Era berean, hurbildu eta laguntza eman zuten  Olatz Tolosa eta Ana Anton, gurasoei garraiolari lanetan aritutakoak, eta baita Luis Janbrina gurasoari ere, guztia grabatzen bota zituen



izerdiengatik! Garraio lan bikaina egin zenuten guztiak! Mila-mila esker eta laster arte!

Udarregi Ikastola".

LOGOPEDIA
Haurrak / Nerabeak / Helduak
TERAPIA MIOFUNZIONALA
• Arnasketa arazoak, disglosia, degluzioa
• Ahotsaren tratamenduak: disfonia funtzionala sinple eta konplexua, disfemiak...
• Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...
Aurreko hitzordua: 635 701 374

ALKORTA
AUTOZERBITZUA
Baserriko haragia
·Frutak ·Barazkiak ·Etxeko produktuak ·Izoztuak
Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

## Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkartea

# “Orain indarrak eraikuntzan zentra ditzakegu”



Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkartean integratu dira Usurbil Zero Zabor taldeko kideak.

Iazko azaroan, errauste plantaren mehatxua desagertu ondoren, barne gogoeta prozesu batean murgildu zen Gipuzkoa Zero Zabor mugimendua. Ordutik, eta hilabete hauetan eginiko lanketatik berregituratuta, indartuta eta datorren urterako plangintza eskutan dutela irten dira. ZZ Ingurumen Babeserako Elkartea izango denari buruz, datorren ikasturteaz, eta orain arteko gogoeta prozesuaz hitz egin du NOAUA!k berregituraturiko mugimenduko usurbildar ordezkariekin.

**NOAUA! Barne hausnarketa betean egon zarete. Zertarako egin zaizue probetxugarria, barne gogoetarako hartu duzuen denbora tarte hau?**

Sortu ginenetik gauzak abiada handian gertatu dira. Eguneroko lanak, burua altxa eta aurrera perspektibarekin begiratzea zaildu du. Errauste planta bertan behera gelditzearekin aro berri batean sartu gara eta hori egiteko une aproposa zen. Horren beharra zegoen, helburuak eta bidea argi edukitzea garrantzitsua da, gainerakoan bitarteko helburuak sakralizatu egiten ditugu eta norabidea gal dezakegu. Errealitatea aberasten joan da praktika zehatzekin, eta guk, errealitate hori barneratu eta egokitu behar dugu. Bestetik, errauste plantak eragiten zituen hainbat baldintza desagertu dira. Atzean zegoen lobbyaren interes ekonomikoek tartean egoteari utzi diote, modu zuzenean egoteari behintzat, hautes lehiak eragiten dituen interesak dira orain Zero Zabor eredua zapuzteko geratzen den arrazoi nagusia. Errauste plantak hamarkadetako kudeaketa eredua baldintzatuko luke. Hori gelditzeko borrokak denbora eta ahalegin asko kentzen zizkion zero zabor ereduaren eraikuntzari. Orain indarrak eraikuntzan zentra ditzakegu.

> **ELKARTE BERRIAN**
>
> ***“Usurbil Zero Zabor taldea osatzen genuenok elkarte berrian txertatu gara eta dinamika horretan jardungo dugu”***

**Berrantolaketa bat egin duzue mugimendu barruan. Bateratzerantz jo duzue. Herrietan osatuak zeuden zero zabor taldeetan nola eragingo du berrantolaketa honek?**

Eraginkortasuna bilatu behar dugu. Lan asko dago egiteke eta ezin dugu honetan jartzen dugun ahalegina alferrik galtzen utzi. Bere garaian Zero Zabor mugimenduak azkar hazi behar zuen herrietan gertatzen ari ziren aldaketei azkar erantzun ahal izateko, bereziki bilketan eman den iraultzari erantzuteko. Horretarako talde autonomoak sortzea abantaila da, erraz sortzeko eta abian jartzeko aukera ematen baitu. Baina arazoak ere sortzen ditu horrek. Lanak errepikatu egiten dira, lanerako prest dagoen jendea erre egiten da taldetik tiraka ibili behar badu, mezuan koherentzia falta egoten da... Horiek denak bideratzeko egituratu eta artikulatu beharra dago. Horretarako formula da bateratzearena. Kideak hartu duten konpromezu mailaren arabera antolatu gara, bakoitza eroso egongo den tokian ekarpena egin dezan. Usurbil Zero Zabor taldea osatzen genuenok elkarte berrian txertatu gara eta horren dinamikan barruan jardungo dugu. 8 kide gaude konpromiso maila hauekin: 3 talde eragilean (1 zubietarra), 1 konpromisoduna eta 4 laguntzaile. Herri mailako ekimenetarako UZZ marka erabiltzen jarraituko dugu.

**Gogoeta prozesutik, izen aldaketa etorri da. Izenak izana ere adierazten duen neurrian, izen aldaketarekin zer adierazi nahi duzue?**

Zero Zabor helburuaren aldeko mobilizazioa Gipuzkoan sortu zen, errauste plantak eragindako lurrikararen ondorioz. Baina hondakinen kudeaketa jasanezinaren arazoa ez da Gipuzkoara mugatzen. Arazo globala da. Euskal Herriko beste herrialdeetan arazoa dago eta Gipuzkoan ez bezala ez dira ari konpontzen. Honetan aritu nahi duen jendea dago eta lekua egiteko une egokia dela iruditu zaigu. Lehendik ere Ingurumen Babeserako Elkartea ginen. Orain hori gehiago azpimarratzea nahi dugu. Eskubide batez ari gara eta horrek agerian egon behar du.

### “Zero zabor eredua da hedatu nahi duguna”

**ZZ Ingurumen Babeserako Elkartea, Euskal Herrira zabaldu asmo duzuen mugimendua izango dela iragarri duzue. Gipuzkoako eredua hedatu asmo duzue beste herrialdeetara?**

Zero Zabor eredua da hedatu nahi duguna. Gipuzkoa erreferente garrantzitsua da noski, emaitza ikusgarriak lortzen ari delako eta gertutasunagatik, baina herrialde bakoitzean bere baldintzetara egokitu behar da bilakaera.

# Sortzez besteko ordainketa sistemaz: "Eredu bihurtzea gustatuko litzaiguke"



Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkartearen sortze batzarra Getarian egin zen.

**NOAUA! Legegintzaldi amaiera honetan, zuen ikuspuntutik, lau urteotan zer nolako bidea jorratu du Gipuzkoak Zero Zaborrerantz?**

Askotan gauzen perspektiba galdu egiten dugu. 2011n erraustegiaren hatsa nabaritu genezake garondoan. Ia dena lotuta zeukaten bultzatzaileek, besteak beste azken orduan eta ez-ohiko batzarrean proiektua onartzearen ondorioz. Mehatxu hori desaktibatzeaz gain, 4 urtetan Gipuzkoa mailan, birziklapena bikoiztu da, sortzen den zabor kopurua heren bat gutxitu da, konpostatzaile kopurua izugarri hazi da. Ia Gipuzkoako herrien erdiak %70etik gorako emaitzak lortzen ditu, Europa mailan praktika onen eredutzat gauzkate... eta hau guztia ez da oraindik bukatu, hobekuntza tarte handia dago. Kontzientziazioan ere izugarri aurreratu da Gipuzkoan, sekula baino gehiago. Askotan, kontzientziazioa eta praktika eraginkorren ezarpena gauza kontrajarriak bailiran planteatzen dizkigute, baina oso bestelakoa dela ikusi dugu, osagarriak direla, batak besteari positiboki eragiten diote elkarri.

**Hondakinen kudeaketari dagokionez, Usurbil aitzindari dugu berriz ere. Nola baloratzen duzue, indarrean jarri berri den sortutako hondakinen araberako ordainketa sistema?**

Hondakinen kudeaketa egoki bat egiteko arrazoi nagusia herritarren osasuna eta ingurumena dira. Baina kudeaketa egoki batek ekonomian eragin positiboa dauka eta eragin positibo hori herritarrei iritsi behar zaie. Hala dagokie, injustizia bat zuzentzera dator, eta gainera, diruarena guztiok ulertzen dugun hizkuntza izanda, jarrera egokiak bultzatzeko neurri eraginkorra delako. Atez atekoaren ezartzearekin bezala hau ere gainontzeko herrientzat eredu bihurtzea gustatuko litzaiguke. Zero Zabor helburura iristeko bidean beste urrats garrantzitsu bat da.

## Edukiontzia kentzean "emaitzak izugarri hobetzen dira"

**NOAUA! Zabor edukiontziei gerra deklaratuz agertu zarete berriz jendaurrera. Datorren ikasturterako lotua duzuen plangintzaren ardatz nagusia izango da?**

Abiatu dugun hausnarketan mahai gainean, eztabaidaren erdian jarri beharreko zenbait elementu identifikatu ditugu. Horietako bakoitzarekin kanpaina bat egingo dugu urtean zehar. Zabor edukiontziarena lehenengoa da, irailerarte luzatuko dena. Elementu hori (zabor edukiontzia) hor egoteak ez dauka zentzurik arazoa sortzeko besterik ez du balio eta. Kentzen den kasuetan bilketa emaitzak izugarri hobetzen direla ikusi ahal izan da gainera.

## Zubietako azpiegitura berria, 2015 urtea amaitzerako prest

Hala iragarri dute Gipuzkoako Foru Aldunditik. Azaroan, lanak esleitzekoa da Diputazioa, eta Gipuzkoako hondakinen zentroa izango den Zubietako azpiegitura berria prest egongo omen da, 2015. urtea amaitu baino lehen. Gune berri honen eraikitze eta hornitze lanen aurrekontua 60 milioi eurotakoa izango da. Errauskailua baino askoz merkeagoa. Aldunditik zehaztu dutenez, eraiki izan balitz, errauste plantak 223 milioi euroko kostua izango zuen. Zubietan kokatuko den azpiegitura berria beraz, 163 milioi euro gutxiago kostako da. Honez gain, 54 lanpostu sortuko ditu.

**Tratamendu mekaniko biologikorako planta bat eraikiko da**

Zubietako gunea, "hondakinak kudeatzeko sarearen bizkarrezurra" izango da Aldunditik berri eman dutenez. Alemaniako Haase Enviromental Consulting (HEC) etxeak diseinaturiko Gipuzkoako hondakinen zentro berriaren ezaugarri nagusiak segidan. Tratamendu Mekaniko Biologikorako planta bat eraikitzera doaz, 13.000 tona ontzi arin tratatzeko eta 20.000 tona organiko konpostatzeko aukera ere emango duena. "Prozesu mekaniko biologikoan, materiari gasa eta likidoa kenduko zaizkio, eta beraz, bolumen handia galduko du: ia heren bat. Prozesu mekaniko biologikoaren ondoren, materia horretatik zati bat birziklatu egingo da, eta beste bat bizigabetu eta ondoren biltegi batera eramango da", zehaztu dute Diputaziotik.

## Uztailaren 16ra bitarte, hondakinen inguruko erakusketa Sutegin

"Hondakinek ez dutelako zertan zabor izan" erakusketa antolatu du Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkarteak, Usurbilgo Udalak lagunduta, uztailaren 10etik 16ra Sutegiko aretoan.





# Bukatu da, akabo



**Inoiz ez zirela iritsiko zirudien eta, konturatu orduko, pasa dira herriko festak. Eguraldia hobea izan zitekeen, baina hala ere, jairako aldarte onean izan dira usurbildarrak. Salbuespenak salbuespen, giro ederrean ospatu dira. Festa-giroak segida izango du laster batean, Zubieta aldean.**

## Argazkitegia, noaua.com



Aldizkari honetakoez gain, argazki gehiago dituzue gure web orrian.

## Baita bideo ugari ere



Inoiz baino bideo gehiago sareratu ditugu noaua.com web orrian.



ARTZABAL
Baserria - Jatetxea
Puntapax 8, Usurbil
943 36 91 39
EGUNEKO MENUA
KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK
TOSTAK
MENU BEREZIAK
www.artzabaljatetxea.com

LUNA PULIDA CRISTANOLA
AÑORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA
·komertzial instalazioak ·beira bikoitza
·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



Eskubaloi taldeko neskek piztu zuten jaietako suziria.




Lore eta salda banaketan, lan handia egin zuten Hurbilagoko kideek.





Jaietako suziria piztu eta berehala hasi zen helduen danborrada jotzen. Euripean aritu behar izan zuten.






Preso politikoak eta iheslariak gogoan izan zituzten soka dantzan. Iaz baino hobeto aritu ziren Bildukoak. PSE zein Aralarreko zinegotziak ez dira aurtengoan aritu.



Hainbat puzgarri ipini ziren kiroldegian.



Euriak ez zuen Umeen Eguna zapuztu. Umeen umorea ez behintzat.



Goizean goizetik abiatu ziren oilasko biltzaileak. Eguerdirako kaxkoan ziren.



Udajolasekoak ere oilaskoak biltzen aritu ziren.



Pailazoak ere bertaratu ziren jaietan.



Txu-txu trenak arrakasta handia izan ohi du.



Zumarte Musika Eskolako trikitilari eta panderojoleak, egur batean.



Egur batean aritu ziren ere erraldoiak eta buruhandiak.



Txokolate-janean, izugarrizko ilara sortu zen.




Gure Esku Dago taldekoek mural batekin apaindu zuten herria.




Txosnak jaietako gune garrantzitsu izan dira.




Askatasuna plaza dantzan jarri zuten trikitilariek.



Gazte eta heldu ibili ziren mus txapelketan.



Patata tortilla lehiaketako saria irabazi zuten Ugaitz Agirrek eta Irati Arrutik.




Artzabalen, pottoka gainean ibiltzeko aukera izan zen ostegunean.




Gazte Eguna ospatu zen ostiralean. Argazkia bazkarikoa da.



Ostiral gauez frontoian aritu ziren Arto Bixar taldekoak.



Kantu jirakoak Kuxkuxtu txarangarekin batera aritu ziren kantuan.



Zuek ez bazatozte, gu goaz zuengana. Horrela ugaldu dira elektrotxarangak.



Gaztetxoak dira erraldoiak gobernatzen dituztenak. Eta nola gainera.



Igande eguerdian, zanpantzarren dilin dolon hotsak jabetu ziren herriaz.



Herriko dantzarien emanaldiak arrakasta handia izan zuen.



Paellak itxura ona du, eta sukaldariak primeran ari dira!



Iruñekoarekin bat egin zuen Txapeldun aurreko txupinazoak.



Maskotaren erretzea hunkigarria izan zen.



Euskal presoak Euskal Herriratzeko eskaera egin zen azken trakan.

# Antton Aranburu, XXXVIII. Santixabel Bertsopaper Lehiaketako irabazlea

U*rdaira Sagardoarekin bertsotan* izeneko bertso sortarekin gailendu zen Antton Aranburu.

**1-Sagardoa**
Baserri lur-sailetan
sagasti zaharra
etxeko izarra
garai batean gure
poztasun bakarra;
sagarrondoan erne
lore goiztiarra
euri eta eguzki
gerora sagarra,
orain hemen zatoz zu
kupeletik zzzzaaarrra!

**2-Bere graziya**
Handik eta hemendik
gu zure etxera
erromes antzera
aurrerako pausoan
inoiz ez atzera;
inguratzen bagara
kupelen ertzera
gauza bat dago garbi
txotxetik txotxera:
grazia aparteko
edaria zera.

**3-Urdaira**
“Ez dut nahi hemen nire
burua juzkatu
baina ez kezkatu
nire graziya nahi dut
zuekin ospatu;
aspaldi hartu nuen
hementxe ostatu
bi mendek dezakete
hau egiaztatu
pentsa zenbatek nauen
Urdairan dastatu”.



*“Aitortuko ditugu / publiko egiyak / gure kolejiyuak / sagardotegiyak”.*

**4-Udarregi**
Behin agertu zituen
gure Udarregiyak
Juan Joxe haundiyak
Pello Errotarentzat
arrazoi garbiyak;
honela jaso ditu
gure memoriyak:
aitortuko ditugu
publiko egiyak
gure kolejiyuak
sagardotegiyak.

**5-Sagardoa alkate**
“Zenbat maitasun eta
zenbat borondate
sortzetik gaur arte
denok sagardozale
onak baitzerate;
herritar askok hala
aitortu didate
eta usurbildarrek
halaxe naukate:
aspaldiko urtetan
herriko alkate”.

**6-“Usurbildarra naiz”**
“Eguzkiak eguzki
ta ekaitzak ekaitz
ez da hain sinesgaitz
hementxe nauzuela
aspaldiko garaiz;
kontu honek ez badu
inor jartzen bekaitz
aitortuko dizuet
sentimentu alaiz:
jatorriz ni neu ere
usurbildarra naiz”.

**7-Hamazazpigarrena**
Hiruzpalau tragoxka
edo agian bortz
egiteko asmoz
kupel artera zuzen
Urdairara gatoz;
barruak inoiz esan
dezakenarren otx!
mantsoagatik, mugi!,
mugi, mekaben zotz!
hamazazpigarrenez
egin dezagun txotx!

**8-“Poliki edantzak!”**
“Merezi ditzaket nik
zuen alabantzak
guztion gorantzak
baina, aizak, hirekin
zauzkat nik zalantzak,
ikusi besterik ez
hor hire balantzak
azkenik ez dik, motell,
hire ipur-dantzak,
hemendikan aurrera
poliki edantzak!”

**9-Laster arte!**
Sagardoak berekin
hainbeste botere
txarrik ez batere
hori sagardozale
denontzat mesede;
lagun leiala izan
dugun mendez-mende
gaur ere portatu da
jator, alafede!
gaizkitxo goaz berriz
etortzeko ere!

**10-Gora sagardoa!**
Ez bada izan ona,
hortik onakoa
guretzat gaurkoa!
zertxobait edan dugu
agian mordoa;
berriro elkartzea
ez da milagroa
beraz honako hauxe
guk azken tragoa,
agur Urdaira eta
gora sagardoa!

**Urdaira**
**Sagardoarekin bertsotan**
Egilea: Antton Aranburu.
Doinua: “Esnesaltzailearena”







# Osasun kontuekin abiatu dira udako eskolak

Ez gara jabetzen sarritan, zer nolako arrisku egoeratan egoten garen. Atzera bueltarik ez duten lesioak izan arte. Eta lesioren bat dugunean nola jokatu? Hartutako Kalte Neurologikoaz aritu da hizketan, Saioa Fernandez usurbildarra, DYAko boluntario batekin batera, aste hasieran Usurbilgo Gaztetxean abiatu ziren udako eskoletan. Uztailaren 18ra arte, hezkuntza, ekonomia eta historiari loturiko gaiak jorratuko dituzte beste hainbat saioetan. Doakoak eta irekiak gainera, aurrez izen eman beharrik ez.



Saioa Fernandez erizaina da.

**Nolatan animatu zinen Udako Eskoletan parte hartzera?**

**Saioa Fernandez:** Eskolen berri NOAUA! bidez jaso nuen. Oso aukera ona zela iruditu zitzaidan. Erizaina naiz. Bizkarmuineko lesioen inguruan lan egiten duen AESLEME elkartean aritua. Praktika txarrengatik ze lesio hartu daitezkeen eta lesioak gertatzean, lesioak ez areagotzeko pertsona hori nola mugitu azaltzea aukera ona zela iruditu zitzaidan. Horretarako, DYAko boluntarioen laguntza interesgarria izango zela pentsatu nuen. Elkarlanean aritu naiz. Alde teorikoa azaldu nuen nik eta DYAko boluntarioarekin mobilizazioak landu genituen.

**Hartutako kalte neurologikoa zure udako eskolako mintzagaia. Zer da zehazki?**

Burezurreko traumatismo bat edo buruan kolpe handi bat izatean, hezurra puskatzen da eta hezurraren barruan dagoen garuna biguna denez, hor lesio batzuk sortzen dira. Buruak lobulu ezberdinak ditu eta horietako zein geratzen den ukitua, lesio horiek bizitza osorako izaten dira; adibidez, memoria, hitzak gogoratzeko, ikusmena, usaimena, puntu asko geratzen dira kaltetuak bizi osorako. Honez gain, burukoaz aparte, lesioak gertatzen dira baita bizkarrezurra puskatzen delako, bizkarmuinaren ondorioz puskatzen da eta lesioa gertatu den puntutik behera, ezer ez da sentitzen. Sentitzen ez duzuna ezin duzu mugitu; orduan gertatzen dira tetraplegiak, paraplegiak edo lesio osoak, partzialak... Lesioa gertatutakoan trapu bat bezala mugitzen baduzu pertsona bat, lesioak areagotu egiten dira. Horregatik eskaini dut saioa DYArekin elkarlanean, beraiek material egokiarekin baitatoz. Pertsona ondo mugitzen dute lesioak ez areagotzeko. Hori zen landu nahi nuena.

**HITZEZ ETA IRUDIZ**

***"Donostian, mutil batek korrika baranda gainetik hondarretara salto egiten dueneko bideoa erakutsi genuen. Halako praktikek bizi osorako lesio oso larriak uzten dituzte"***

**Kontatzen duzunagatik, gai honetan ere sentsibilizazio falta dugu?**

